

Helduen Literatura

Lasai, ez da ezer gertatzen
Ana Malagon
Elkar, 2014



I'm a loser baby

ANA MALAGONEK idatzitako lehen liburu honetan mikroipuinak topatuko dituzu, orrialde laurden, heren edo erditik gutxitan pasako direnak. Narrazio labur gehienek bertsoen egitura dute, kolpea amaieran baitator. Kolpea diot, baina batzuetan ukabilkada izaten da, (ironiaz hornitutakoa zenbaitetan), irakurlea identifikatu daitekeelako bertan agertzen diren hainbat konturekin, batez ere, belaunaldia, jatorria eta klasea konpartitzen baditu egilearekin, erreferentzia eta bizipenak errepikatzen direlako (edo ez?) eta bizitza, heriotza, maitasuna eta gorrotoa bezalako gai unibertsalez diharduelako testuotan, eta bestetasunaz.

Ipuinotan, hitzaurrea idatzi dion Iban Zalduak dioen moduan, “bakardadearen koordinadak” agertzen dira, eta gehiago edo gutxiago, XXI. mendeko Mendebaldeko kulturako klase ertaineko biztanle zuriok inoiz izan dugun gaitza da hori; hurbila(goa) eta ezaguna(goa) zenbaitentzat, zenbaitetan. Hala ere, honekin batera, bizitz(e)ak eragiten duen minaren erradiografia egin eta ahots marjinal edo marjinatuen berri eman digula ere esango nuke nik.

“Isilune ozenak” agertzen zaizkigu liburuan, eta bakardadeari aurre egiteko trikimailuak kontatzen dizkigu eskuzabal. Zauriak ikusiko ditugu, zabalik edo sendatze bidean, minaren kudeaketa eguneroan. Bizitzaren aztarnekin batera heriotza ere izango da kukuka; hiltzaileek, suizidek eta hildakoek hitz egingo digute ipuin batzuetan, “bizitzeko gogo

biziz agurtu genuen heriotza” bezalakoak orriotara ekarri.

Denboraren iragatea eta honen arrastoa dugu bertan, “orainaren berri ematen digun soinua” izango da iratzargailua, laneko leloa “atzorako egina egon behar du biharko den guztiak” eta iragana ahaztu edo “memoriaren bazterretan abandonatu” egiten dela irakurriko dugu. Ahanzturatik berreskuraturakoen artean familia eta haurtzaroa izango dira bi eremu emankor, adibidez, haur sasoian pairatutako bazterketa eta jasandako erasoak eta hauen justifikazioa “norbaiten karismaren menpe bizi behar dugulako beti”.

Izenburuan gezurra esaten digu egileak gu lasaitu nahian, gauza asko gertatzen dira eta liburuaren orrialde hauetan. Ez dira denek ikusi, entzun edo sumatu ditzaketen gauzak, eta hori izango da narra-tzailearen lana, guri haien berri ematea, ikusgarri egingo dituelako hango eta hemengo hirietan bizi den jende bakartiaren gorabeherak; ahotsa eta protagonismoa emango dielako lehen munduko jendarteko galtzaileei, haien odol, izerdi, heste eta dardarak paper gainean ipiniz eta kritika honen izenbururako erabili dugun 1990. hamarkadako kantu ezaguna (niri behintzat) burura ekarri. ■

Amaia
Alvarez Uria








Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia